

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ASPARRENEKO UDALA

#### **Mercedes Fernández de Bastida Montoya praktiketako langile lan kontratudun izendatzea musika eskolako akordeoi eta trikitixa irakasle plazarako**

Ikusi da egiturazko plaza huts hau merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko izapidetutako espedientea: Asparreneko musika eskolako musika hizkuntza eta solfeo irakaslea.

2022ko abenduaren 21eko 146. zenbakiko ALHAOn argitaratu zen alkatearen 2022ko azaroaren 25eko dekretu baten bidez, argitara eman ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak, bai eta deialdi arautzailea ere, lehiaketa bidez goian aipatutako plaza esleitzeko, bat etorri Enplegu Publikoan Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/21 Legean jasotakoarekin. Horien laburpena argitaratu zen 2023ko apirilaren 19ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (93. zk.).

Kontuan hartuta, ALHAOren 113. zenbakian, 2024ko urriaren 4koan, akordeoi eta trikitixa irakasle plazaren puntuazioaren behin betiko zerrenda eta esleipen proposamena argitaratu zirela.

Lanpostua behin-behinekoa izango da 6 hilabetez, probaldia edo praktikaldia egin behar baita, hala ezartzen baitu abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorren 15. oinarriak.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21. h) artikulua emandako eskumenetan oinarrituta, honako hau

#### EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Mercedes Fernández de Bastida Montoya praktiketako langile lan kontratudun izendatzea, musika eskolako akordeoi eta trikitixa irakasle plazarako. (Taldea: A2 taldea. Destino-osagarriaren maila: 26. Titulazioa: musika irakaskuntzen erdi mailako gradua (1966ko plana) edo baliokidea. Arduraldia: lanaldi partziala, matrikulazioaren arabera. Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe).

BIGARRENA. Josu Perez de Villarreal Larrea tutore izendatzea.

HIRUGARRENA. Izendapena ALHAOn argitaratzea.

LAUGARRENA. Ebazpen honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

Araia, 2025eko urtarrilaren 7a

*Alkatea*

*TXELO AUZMENDI JIMÉNEZ*

*Idazkaria*

*M. LOURDES MIRANDA LAFUENTE*